

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

320/2025 Foru Agindua, azaroaren 27koa. Euskarazko literatura-sorkuntzarako "Ignacio Aldecoa Beka" bekaren deialdia onartzea

Kultura eta Kirol Sailaren eginkizunen artean daude kultura-etxearen erabiltzaileen kategoria desberdinetara bideratutako kultura- eta hezkuntza-jarduerak diseinatzea, koordinatzea eta gauzatzea, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duen Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 22ko 9/2022 Foru Dekretuan zehazten denaren arabera.

Hala, literatura-arten arloan, euskarazko literatura-sorkuntzarako "Ignacio Aldecoa Beka" beka deitu da kontakizunaren eta ipuinaren generoan, euskarazko sortzaileei laguntza ekonomikoa emateko, literatura-ipuinaren modalitatean literatura-lanak egin ditzaten.

Beka honen helburua euskarazko literatura-sorkuntza sustatzea da. Figura literario berriak edo sendotzeko prozesuan dauden figurak aurkitu nahi dira, Ignacio Aldecoaren irudia oroitzuz eta goraiatuz.

Nahitaezko txostenak ikusi dira.

Ondorioz, niri emandako ahalmenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Euskarazko literatura-sorkuntzarako "Ignacio Aldecoa Beka" bekaren deialdia onartzea (I. eranskina).

Bigarrena. Deialdiaren eskabide-eredua onartzea, ebazpen honen II. eranskinean dagoena.

Hirugarrena. Deialdi hori honako hauek kontuan hartuta arautzen da: Kultura eta Kirol Sailaren lehia-araubideko dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarri orokorrak (Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretua, 2019ko azaroaren 20ko 134 zenbakiko ALHAOn argitaratua, martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuak aldatua), Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan aurreikusitakoa, eta ebazpen honen I. eranskinean ezarritakoa.

Laugarrena. Foru agindu honen bidez araututako beka Arabako Foru Aldundiaren 2026. urterako Gastuen Aurrekontu Proiektuko 70104. G/332701/48000703 partidaren kargura ordainduko da, eta 12.000,00 euroko gehieneko zenbatekoa ezartzen da guztira. Beka emateko baldintza etengarria izango da beka finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa egotea.

Bosgarrena. Beka emateko ebazpena gehienez ere sei hilabeteko epean emango da, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Gehieneko epea igaro eta ebazpen espresurik eman ez bada, interesdunek ulertu ahal izango dute beren eskaera ezetsi egin dela.

Seigarrena. Beka emateko edo ukatzeko ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako moduen arabera.

Zazpigarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratuko da eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Zortzigarrena. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko Kultura eta Kirol Saileko foru diputatu titularri, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatzen baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluan. Bestela, zuzenean aurkaratu daiteke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, egintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian, hala xedatuta baitago Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko azaroaren 27a

Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua
ANA MARÍA DEL VAL SANCHO

Kultura zuzendaria
MARÍA INMACULADA SÁNCHEZ ARBE

I. ERANSKINA

EUSKARAZKO LITERATURA SORTZEKO "IGNACIO ALDECOA BEKA"

1. artikulua. Xedea eta helburua

1. Euskarazko literatura sorkuntzarako "Ignacio Aldecoa Beka" deialdiaren xedea euskarazko sortzaileei laguntza ekonomikoa ematea da, literatura ipuinaren modalitatean kalitatezko literatura lanak egin ditzaten.

2. Beka honen helburua euskarazko literatura sorkuntza sustatzea da. Literatura figura berriak edo sendotze bidean daudenak aurkitu nahi dira.

3. Deialdi hau Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailaren lehia-araubideko dirulaguntzak emateko oinarri orokor arautzaileek arautzen dute (azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretua, eta haren ondorengo aldaketak).

2. artikulua. Laguntzak emateko prozedura

Bekak norgehiagoka bidez emango dira. Beka emateko, aurkeztutako eskabideak alderatuko dira, haien arteko lehentasuna ezartzeko, horretarako izendatutako balorazio batzordeak egindako balorazioaren arabera.

3. artikulua. Aurrekontu egozpena eta bekaren zenbatekoa

1. Beka bakarra emango da. Bekaren diru hornidura 12.000,00 euro da.

2. Gastu hori Arabako Foru Aldundiaren 2026eko gastu aurrekontuko proiektuko partida honetatik ordainduko da: 70104. G/332701/48000703 "Literatura sorkuntza sustatzea".

4. artikulua. Onuradunen betekizunak

1. Deialdian parte hartu ahal izango dute deialdia ALHAOn argitaratzen den egunean 16 urte beteta dituzten pertsona fisikoek, haien nazionalitatea eta bizilekua edozein dela ere.

2. Onuradunek egunean izan beharko dituzte zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

3. Kultur Etxeko Zerbitzuak ofizioz egiaztatuko du pertsonak atal honetan adierazitako baldintzak betetzen dituztela. Egiaztapen horien aurka eginez gero, gertaera horien egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte, 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arautzen duen moduan (Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak aldatua, azken xedapenetako hamabigarrenaren arabera).

5. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak

Laguntza hauek jaso nahi dituzten pertsonak honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

– Ipuin bat aurkeztu beharko dute, originala, argitaragabea (ezein formatutan argitaratu gabea, ez inprimatua, ez digitala) eta jatorriz euskaraz idatzia. 10 eta 25 orrialde artean izan behar ditu, inprenta tipografiaz idatziak (arial 12 edo antzekoa) eta tarte bikoitzean.

– Horrekin batera, proiektu bat aurkeztu beharko dute, bekak irauten duen bitartean ipuin bilduma bat idazteko. Liburuak zer beste ipuin izango lituzkeen jaso behar du proiektuak, bai eta izenburua eta edukiaren behin-behineko azalpena ere, eta beharrezkotzat jotzen diren ez-augarriak zehaztu behar ditu, hala nola argumentua, egitura, luzera, estiloa eta abar.

6. artikulua. Eskabideak aurkezteko moduak

1. Deialdian parte hartu nahi duten pertsonak bide hauetakoren bat erabili beharko dute eskabidea aurkezteko:

a. Aurkezpen telematikoen bidez. Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen izapide espezifikoaren bidez: <https://egoitza.araba.eus/eu/-/beca-creacion-literaria-en-euskera-ignacio-aldecoa>.

b. Aurrez aurre: Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza 5), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16 artikuluan aurreikusitako gainerako moduetako edozeinetan. Lege horrek ezarritakoarekin bat etorritik, postaz bidalitako eskabideak ere onartuko dira.

Atal honetan jasotako moduan aurkezten diren eskabideak deialdi honetako II. eranskineko eredura egokitu beharko dira.

2. Eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira:

a. Bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuz gero:

Aurkezten den ipuina, PDF formatuan. Eskema honi jarraituz jarri behar zaio izena fitxategi horri: LANAREN IZENBURUA-IZENGOITIA.ipuina. PDF.

Ipuin bildumaren proiektua, PDF formatuan. Eskema honi jarraituz jarri behar zaio izena fitxategi horri: PROIEKTUAREN IZENBURUA-IZENGOITIA.bilduma. PDF.

Lanaren formatu informatikoan ezin da egilearen izena agertu.

b. Aurrez aurre edo posta bidez aurkeztuz gero:

Eskabideak Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailean zuzendu behar zaizkio, helbide honetara aurkeztuz edo bidaliz:

ARABAKO FORU ALDUNDIA.

Erregistro Orokorra.

Kultura eta Kirol Saila.

Kultura Etxea Zerbitzua.

Erref.: "Ignacio Aldecoa Beka."

Probintzia plaza, 5 01001 Vitoria-Gasteiz.

Eskaeretan honako hauek jaso beharko dira:

• Aurkezten den ipuina, euskarri informatikoan (CDa edo pendrivea), PDF formatuan. Eskema honi jarraituz jarri behar zaio izena fitxategi horri: LANAREN IZENBURUA-IZENGOITIA. ipuina. PDF.

- Ipuin bildumaren proiektua, euskarri informatikoan (CDa edo pendrivea), PDF formatuan. Eskema honi jarraituz jarri behar zaio izena fitxategi horri: PROIEKTUAREN IZENBURUA-IZENGOITIA. bilduma. PDF.

Lanaren formatu informatikoan ezin da egilearen izena agertu.

- Deialdi honen II. eranskina, behar bezala beteta.

II. eranskinean ipuinaren izenburua, proiektuaren izenburua eta aurkeztutako eskaera identifikatzeko erabiliko den izengoitia adieraziko dira.

3. Eskaeran erroreren bat badago edo osorik ez badago, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari antzemandako akatsak zuzentzeko. Epe horretan egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan jasotako moduan ebazpena eman ondoren.

Ezingo da zuzendu eskatutako dokumentuak (ipaina eta proiektua) aurkeztu ez izana. Eskarekin batera dokumentu horiek aurkezten ez badira, ezetsi egingo da.

4. Eskaerak ezetsi egingo dira, halaber, ipuineko edo proiektuko dokumentuetan egilea identifikatzeko daturen bat agertzen bada.

7. artikulua. Aurkezteko epea

Hautagaitzak aurkezteko epea deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eta 2026ko martxoaren 31ean amaituko da, 23:59an (Espainiako penintsulako ordua).

8. artikulua. Bateriaezintasunak

1. Eskatzaileek ezingo dituzte deialdi honetara aurkeztu aurretik edozein lehiaketa edo sari-ketatan saritutako ipuinak.

2. Era berean, ezingo dute deialdi honetara aurkeztu literatura sorkuntzako beka edo dirulaguntzaren bat jaso duten ipuinak.

3. Era berean, ezingo dute deialdi honetara aurkeztu edozein hedabidetan (inprimatua edo digitala) argitaratutako ipuinak.

4. Era berean, ezin izango dute deialdi honetara ipuinik aurkeztu, jatorriz edozein hizkuntzatan idatzita egonik euskarara itzuli badira.

5. Beka hau bateraezina da edozein erakunde publiko edo pribatuk literatura sorkuntza bultzatzeko emandako beste edozeinekin.

9. artikulua. Eskabideak balioesteko irizpideak

1. Beka ematean, publikotasunaren, gardentasunaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak bermatuko dira, aurkeztutako eskabideak alderatuz.

2. Beka emateko, aurkeztutako ipuinak irizpide hauen arabera balioetsiko dira:

LANAREN SORMENA ETA ORIGINALTASUNA	HAZTAPENA PUNTUTAN (GEHIENEZ 4 PUNTU)
Oso handia	4 puntu
Handia	3 puntu
Ertaina	2 puntu
Txikia	1 puntu

NARRAZIOAREN EGITURA ETA ERRITMOA: EKINTZAREN ETA GERTAKARIEN SEGIDAREN ANTOLAKETA EGOKIA, OBRAREN UNE GORENERA IRITSI ARTE	HAZTAPENA PUNTUTAN (GEHIENEZ 3 PUNTU)
Oso handia	3 puntu
Handia	2 puntu
Ertaina	1 puntu
Txikia	0 puntu

ERABILITAKO HIZKUNTZAREN ABERASTASUNA ETA OBRAREN GARAPENAREN KOHERENTZIA	HAZTAPENA PUNTUTAN (GEHIENEZ 3 PUNTU)
Oso handia	3 puntu
Handia	2 puntu
Ertaina	1 puntu
Txikia	0 puntu

3. Ipuin bildumen proiektuak balioestea.

Proiektuak soilik irakurri eta balioetsiko dira aurkeztutako ipuinek 6 puntu gainditzen dituztenean, artikuluko honen 2. paragrafoan ezarritako irizpideen arabera.

Proiektu bakoitzaren puntuazioa irizpide hauek aplikatuta lortuko da:

AURKEZTUTAKO PROIEKTUAREN KALITATEA	HAZTAPENA PUNTUTAN (GEHIENEZ 3 PUNTU)
Oso handia	3 puntu
Handia	2 puntu
Ertaina	1 puntu
Txikia	0 puntu

AURKEZTUTAKO PROIEKTUAREN BIDERAGARRITASUNA, AZALPENAREN ETA EZAUGARRIEN ARABERA.	HAZTAPENA PUNTUTAN (GEHIENEZ 3 PUNTU)
Oso handia	3 puntu
Handia	2 puntu
Ertaina	1 puntu
Txikia	0 puntu

SORMENA ETA ORIGINALTASUNA. BERRIKUNTZA.	HAZTAPENA PUNTUTAN (GEHIENEZ 3 PUNTU)
Oso handia	3 puntu
Handia	2 puntu
Ertaina	1 puntu
Txikia	0 puntu

Ezingo dira beken onuradun izan proiektuen balorazioan gutxienez 5 puntu lortzen ez dituzten eskatzaileak.

4. Guztizko puntuazioa ipuinaren balorazioan lortutako puntuazioa eta proiektuaren balorazioan lortutako puntuazioa batuz lortuko da.

10. artikulua. Prozeduraren instrukzioa eta eskaeren balioespena

1. Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Kultura Etxeko Zerbitzua izango da prozedura izapidetzeko organo eskuduna.

2. Laguntza emateko proposamena balorazio-batzorde batek egingo du. Batzorde horren osieran emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izango da, 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenaren ezarritakoa betez. Honako hauek osatuko dute batzordea:

- Lehendakaria: Kulturako zuzendaria edo hark eskuordetzen duena.
- Bokalak: Kultur Etxeko Zerbitzuko burua edo hark eskuordetutako pertsona eta Kultura Zuzendaritzari atxikitako bi teknikari.
- Idazkaritza: Kultura eta Kirol Departamentuko Idazkaritza Teknikoaren Zerbitzuko burua, hitzarekin, baina botorik gabe, edo hark eskuordetutako pertsona.

3. Balio-judizio baten mende dauden irizpideei dagokienez eskabideak ebaluatzeko, balorazio-batzordeak aditu profesional independenteen parte-hartzea izan ahal izango du, literatura laburraren arloan gaitasun profesionala eta esperientzia dutenak. Pertsona horiek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitako abstentzio-kausetan sartuta ez daudela adierazteko, konfidentialtasuna bermatzeko, emandako dokumentazioa deialdi honetan ezarritako irizpideen arabera proiektuak baloratzeko ez den beste helburu baterako ez erabiltzeko, eta, ebazpen-proposamena egin ondoren, espedienteen dokumentazio guztia suntsitu edo, jatorrizkoak badira, prozeduraren instrukzio-organismoari itzultzeko. Izendapenak Kultura eta Kirol Saileko diputatu titularren ebazpenaren bidez onartuko dira. Ebazpen hori Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, interesdunek errefusatzeko duten eskubidea lege ezarritako kasu eta baldintzetan balia dezaten.

4. Balioespen batzordeari aholkuak ematen dizkioten adituei egileen izenik gabeko obrak baino ez zaizkie emango. Behar bezala, egilearen izenik gabe ez dauden obrak ezetsi egingo dira balioespen fasea baino lehen.

5. Balorazio-batzordeak deialdi honetan ezarritako irizpideen arabera aztertuko ditu aurkeztutako eskabideak, eta, beka emateko edo ukatzeko proposamenarekin batera, txosten bat egingo du. Txosten horretan, onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten eskabide guztien zerrenda ordenatua jasoko du, eta eskatzaileen puntuazioa adieraziko du, lehentasun-hurrenkeran, batezbestekotasunagatiko edo uko egiteagatiko ordezkapenen kasuan. Zerrenda horretan puntu gehien dituen pertsonari emango zaio beka, eta gainerakoak ordezeko izendatuko dira bateraezintasun edo uko kasuetarako, lortutako puntuazioaren hurrenkeran.

Berdinketarik egonez gero, ipuinaren balorazioan puntuaziorik handiena duenak jasoko du beka. Berdinketak jarraitzen badu, beka gazteenak jasoko du. Eta, hala eta guztiz ere, berdinketak bere horretan jarraitzen badu, bekaduna emakumezkoa izango da.

Batzorde horrek, aurkeztutako eskabideen balorazioa ikusita, beka eman gabe uztea proposatu ahal izango du.

11. artikulua. Prozeduraren ebazpena

1. Kultura eta Kirol Saileko titularrak dagokion ebazpena emango du deialdia ALHAOn argitaratu eta gehienez ere sei hilabeteko epean.

2. Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako moduan.

3. Lanak ez zaizkie egileei itzuliko, eta suntsitu egingo dira beka emateko ebazpena ALHAOn argitaratzen denetik hogeita hamar eguneko epean.

12. artikulua. Beka ordaintzea

Emandako bekaren zenbatekoari kasuan kasuko PFEZaren atxikipena egingo zaio, eta ordainketa bi epetan egingo da, honela:

– Ehuneko 50, justifikatu beharreko aurrerakin gisa, bekadunaren izendapenaren ebazpena onartu ondoren.

– Gainerako ehuneko 50a, ipuin-bilduma entregatzean, Kultur Etxeko Zerbitzuko burutzak aldeko ebaluazio-txostena eman ondoren.

13. artikulua. Beka itzultzea

1. Ebaluazio txostena aldekoa ez bada, ez da bigarren ordainketa egingo, eta lehenengo epean jasotako zenbatekoa itzuli egingo da.

2. Halaber, Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak ezarritako kasuetan, jasotako dirulaguntzak itzuli egin beharko dira.

Onetsitako dirulaguntzaren kontura jasotako kopuruen itzulketa zuzenbide publikoko diru sarreratzat hartuko da eta haren kobrantza Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauaren II. tituluko I. kapituluan xedatzen denarekin bat etorritik egingo da

14. artikulua. Literatura sorkuntzarako beka ematek eratorritako betebeharrak eta konpromisoak

1. Onuradunak berariaz jakinaraziko du beka eta haren oinarriak onartu dituela, gehienez ere hamabost egun balioduneko epean, laguntza eman zaiola jakinarazten zaion egunetik zenbatzen hasita. Epe horretan beka onartzen ez bada, onuradunak atzera bota duela ulertuko da, eta hurrengo pertsona hautatuko da ordezeko eskabideen zerrendan.

2. Literatura-sorkuntzarako bekaren onuradunak ipuin-bilduma bat egin beharko du, gutxienez 20.000 hitzekoa, letra mota irakurgarri idatziak (Arial 12 edo antzekoa) eta tarte bikoitzarekin. Ipuin-bilduma hori Arabako Foru Aldundiari eman beharko zaio, 2026ko abenduaren 18a baino lehen.

3. Kultur Etxeko zerbitzuburuak aurkeztutako ipuin-bildumaren ebaluazio-ziurtagiria emango du. Eskabideak baloratzeko izendatutako adituen aholkularitza jaso ahal izango du.

15. artikulua. Argitaratzeko eskubidea

1. Arabako Foru Aldundiak bai ipuina, bai ipuin bilduma argitaratu ahal izango ditu, bere kabuz edo ospe handiko argitaletxe batekin batera, ebazpena ALHAOn argitaratu eta hamabi hilabeteko epean; kasu horretan, edizio kontratu bat sinatuko da. Lana argitaratzeak ez du eragingo inolako ordainketarik bekaz lortutakoaz gainera.

2. Bekaren onuradunak lanaren (ipuina) eta bekaren ondoriozko lanaren (ipuin bilduma) ustiapen eskubideak lagako ditu mundu osoan euskaraz argitaratzeko, zazpi urtez.

3. Arabako Foru Aldundiak gordailu digital batean sartzea baloratuko du, eta, horretarako, edizio digitalerako eskubidea gordeko du beretzat, mundu osoan euskaraz zabaltzeko, denbora mugagabe.

4. Egileak bere kabuz argitaratu nahi badu lana, berariazko baimena eskatu beharko dio Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailari, eta, nolahi ere, berariaz adierazi beharko da lana Arabako Foru Aldundiaren Ignacio Aldecoa Bekari esker egin dela.

Arabako Foru Aldundiak, Ignacio Aldecoa Bekari esker idatzizko obraren gaineko sustapen-eskubideak beretzat gordetzen ditu, eta ez dira, inola ere, eksklusiboak. Sustapen-eskubidetzat hartzen dira obra eta egilearen irudia ezagutzera ematea ahalbidetzen dutenak.

Nolahi ere, obraren edozein argitalpenetan, dela osorik edo zati batean, dela teaser sustatzailean edo edozein publizitatean, honako hau jaso beharko da: «Obra hau Arabako Foru Aldundiak sustatutako Ignacio Aldecoa Bekari esker sortu da». Adierazpen hori jatorrizko bertsioan, edizio eta itzulpen guztietan eta edizioari dagokion hizkuntzan jaso beharko da, eta, gainera, erakundearen logotipoa ere sartu beharko da, ahal den guztietan.

5. Ipuin-bildumaren ebaluazio-ziurtagiria aldekoa ez bada, bekadunak eskubidea galduko du Arabako Foru Aldundiak argitaratzeko, bakarrik edo ospe handiko argitaletxe batekin batera. Bekadunak ipuina eta/edo ipuin-bilduma argitaletxeren batekin argitaratu nahi badu, ezin izango du adierazi literatura-sorkuntza horiek beka hau lortu zutenik.


16. artikulua. Publikotasuna

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da. Horrez gain, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan jarriko da ikusgai: <https://egoitza.araba.eus/eu/hasiera>.

17. artikulua. Azken klausula

Deialdi honetan xedatuta ez dagoen guztian, honako hauei jarraituko zaie:

- 11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzkoa.
- 3/2023 Foru Arau Orokorra, urtarrilaren 25ekoa, Dirulaguntzena.
- Aurrekontua Gauzatzeko Foru Araua, indarrekoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erki-dearena.
- 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen berdintasun Eragingarrirakoa.
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
- Aplikatu beharreko gainerako arauak.

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Alava www.araba.eus	Sorkuntza beka Beca de creación IGNACIO ALDECOA BEKA	2026
	II. ERANSKINA • ANEXO II	

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte

* Derrigorrezko datuak ■ Datos obligatorios

SORKUNTZA BEKA ■ BECA DE CREACIÓN

Euskarazko literatur sorkuntzarako "Ignacio Aldecoa Beka" beka / Beca de creación literaria en euskera "Ignacio Aldecoa Beka"

Ipuinaren izenburua ■ Título del cuento *

Proiektuaren izenburua ■ Título del proyecto *

Ezizena ■ Seudónimo *

DATU PERTSONALAK ■ DATOS PERSONALES

Izena ■ Nombre *		
Lehen deitura ■ Primer apellido *		Bigarren deitura ■ Segundo apellido
Identifikazio agiria ■ Tipo de documento identificativo		Identifikazio zk. ■ N.º identificativo *
Aukeratzea / Seleccionar		
Sexua/generoa ■ Sexo/género	Adina ■ Edad	Posta elektronikoa ■ Correo electrónico *
Aukeratzea / Seleccionar		
Posta helbidea ■ Dirección postal *		
Telefono mugikorra ■ Teléfono móvil *		Beste telefono bat ■ Otro teléfono

ZINPEKO DEKLARAZIOA:

- Honen bidez, adierazten dut

izenordearekin aurkeztutako

izeneko ipuina originala, argitaragabea eta jatorriz euskaraz idatzia dela, eta ez duela saririk jaso beste ezein lehiaketa edo sariketatan, aurkezpen egunera bitartean. Era berean, ez da literatura-sorkuntzarako beka edo dirulaguntzarik jaso.

- Lehiaketan adierazitako baldintzak onartzen ditut.


DECLARACIÓN JURADA:

- Por la presente, declaro que el cuento

presentado bajo seudónimo

es original, inédito, originalmente escrito en euskera y no ha sido premiado, hasta la fecha de presentación, en ningún otro certamen o concurso. Tampoco ha sido realizado al amparo del disfrute de cualquier beca o subvención para la creación literaria.

- Acepto las condiciones que regulan esta convocatoria.

	Sorkuntza beka Beca de creación IGNACIO ALDECOA BEKA	2026
---	--	-------------

KULTURA ZUZENDARITZAK
OFIZIOZ EGIAZTATZEA*(Adierazi dagokiona)*

Aplikatu beharreko araudiaren arabera, Kultura Zuzendaritzak honako datu hauek egiaztatuko ditu administrazio eskuduneari:

- Eskatzailearen nortasun datuak
- Zerga-betebeharrak egunean dituela adierazten duen informazioa
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela adierazten duen informazioa

Aipatutako datuak ofizioz egiaztatzeari uko egin nahi diozu?

- Ofizioz eskatzailearen nortasun datuak egiaztatzearen hauen AURKA NAGO
- Ofizioz zerga betebeharrak egiaztatzearen hauen AURKA NAGO
- Ofizioz Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egiaztatzearen hauen AURKA NAGO

Aurka eginez gero, deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

COMPROBACIÓN DE OFICIO
POR LA DIRECCIÓN DE CULTURA:*(Marcar lo que corresponda)*

De acuerdo con la normativa aplicable, la Dirección de Cultura comprobará en la administración competente los siguientes datos:

- Datos de identidad de la persona solicitante.
- Información de estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias.
- Información de estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones frente a la Seguridad Social.

¿Desea oponerse a la comprobación de oficio de los datos mencionados?

- ME OPONGO a la comprobación de oficio de los datos de identidad de la persona solicitante.
- ME OPONGO a la comprobación de oficio del cumplimiento de las obligaciones tributarias.
- ME OPONGO a la comprobación de oficio del cumplimiento de las obligaciones frente a la Seguridad Social.

En caso de oponerse deberá aportar los documentos acreditativos de cumplir los requisitos establecidos en las bases de la convocatoria.

Tokia ■ Lugar <input type="text"/>
Data ■ Fecha <input type="text"/>

DATUAK BABESTEO OINARRIZKO ARGIBIDEA

Jakinarazten dizugu zuk emandako datuak Arabako Foru Aldundiak tratatuko dituela eta "Kultura Etxeko jarduerak" deituriko tratamenduetan erantsiko direla, liburutegiko zerbitzuen eta liburutegi-kudeaketaren jarraipena eta kontrola egin daitezen, eta kultura-jarduerak burutu eta sustatzeko. Datu horien tratamendua Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Araudien eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren Sekoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko legean ezarritakoaren arabera egingo da.

Bermatzen dugu datuak isilpean gordeko direla, eta ez zaizkiola jakinaraziko beste inori, lege ezarritako kasuez kanpo.

Aukeran izango duzu datuetan sartu, haiek zuzendu, ezereztu, haien aurka egin eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzea, zeinak DBEOk aitortzen baititu, eta, horretarako, Egoitza Elektronikoz baliatu ahalko zara www.araba.eus atarian edo Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegora jo ahalko duzu (Probintzia plaza, 5, 01001 PK, Gasteiz - Araba).

Argibide gehiago:

<https://web.araba.eus/eu/tratamenduen-lege-ohar-hedatua>

INFORMACIÓN BÁSICA SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS

Le informamos que los datos que usted nos facilita van a ser tratados por la Diputación Foral de Álava y se van a incorporar a los tratamientos denominados "Actividades Casa de Cultura", con la finalidad de realizar el seguimiento y control de los servicios de la biblioteca y de la gestión bibliotecaria, así como para la realización y promoción de actividades culturales. El tratamiento de estos datos se realizará de acuerdo con lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD a través de la Sede Electrónica en www.araba.eus, o dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria-Gasteiz (Álava).

Para más información:

<https://web.araba.eus/es/aviso-legal-ampliado>